

# SHOA

2019-2020 ikasturtea

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV / EHU

Arloa: Mundu garaikidearen oinarriak

Taldea: Hizkuntzalariak 31

Gradua: Frantses filologia

Entrega epea: apirilak 26

24.taldea

Taldeakideak:

- HERNANDEZ AZAROLA, Igone
- ITURBE TELLERIA, Maddi
- URIBESALGO MUÑOZ, Irati

1918 eta 1939 bitartean Europako demokraziak krisian sartu ziren. 1920ko munduko 35 erregimen parlamentarioetatik, 22 Europan zeuden, 1944ean aldiz munduko 12 erregimen parlamentarietatik 6 besterik ez zeuden gure kontinentean. Demokrazia liberala erasotuz, arrakasta lortu zuten bakarrak eskuin muturreko alderdiak izan ziren eta horrek beste ia guztien desagertzea ekarri zuen. Horien artean nazien gobernuak ere eratu ziren, besteak beste Alemanian. Gerren arteko garai honetako faxismoen gorakadaren ondorioetako bat jarraian azalduko dugun egoera errepresibo eta anikilatzailea izan zen.

Shoa, *Holokaustoa* izenez ere ezaguna dena, nazien eta beren aliatuen eraginez 1933tik 1945era juduek pairatutako genozidio sistematikoa izan zen; hau da, bestelako sinismenak izate hutsagatik sarraskitze masiboa egitea erabaki zuten. Izan ere, nazien helburu nagusia arraza artoa lortzea baitzen.

## 1. Testuingurua

Weimarko Errepublika sortu zen, 1918-1933 bitartean sistema politiko ez egonkorra izan zena. Versaillesko hitzarmenean baldintzaturik, eskuin zein ezker muturrak sistematik kanpo utziko zituen errepublika izan zen. Juduek handitasunez zuzenduriko Azaroko iraultza eta Bavariako Sobietar Errepublika (bietan erradikalena) sortu ziren. Nazionalistek eta komunistek euren artean sortutako kale borroka batean bilakatzen da. 1923 arte ekonomiaren hiperinflazioa eta Rur-en inbasioa eman ziren (Alemaniako zonalde industrializatuen); horregatik, Dawes plana martxan jartzea erabaki zen. Plan hau 1924 eta 1929 bitartean AEBk Alemaniari IMGko zorrak ordaintzeko eskaintako mailegu plana izan zen. Ondoren, 29an, New Yorkeko poltsan crack ekonomiko izugarria eman zen eta langabe kopurua herritartasunaren ia erdia izatera iritsi zen. Hitlerrek momentu hau estatu-kolpe bat emateko aproposa izan zitekeela erabaki zuen, baina porrotaren ondoren 9 hilabete pasa behar izan zituen kartzelaratuta, boterea lortzeko era bakarra demokrazia zela konturatuz.

Hitler 1933ko urtarrilean kapitalaren, eliteen eta eliza protestantearen sostengua izango zuen kantziler bilakatu zen. Hilabete batzuk beranduago parlamentuak komunista batek egindako suteaz geroztik, botere bereziak lortu zituen. Eliteen sostengua izan ahal izateko dialektika iraultzailea nahi zuten ezker alderdiko lider guztiak akatu zituen Aizto Luzeen Gauean (1934ko ekaina). 1935ko Nurembergeko legeetan juduen eskumenak estatuarenak direla esatera iritsiko dira. Hiru urte beranduago Kristal Hautsien gaua gertatzen da, non laderdi naziak juduak akatzeko ekimena egiten duen. 90 hildako izan zituen lantegiak eta dendak itxi ziren azaroko egun horrek. Alderdiarekin zerikusirik izan ez zuela pentsarazi nahi izan zuten, baina protestarik izan ez zenez hurrengo fasera pasatzeko aukera paregabea izan zuen. Elbarri eta gaixoak akatu zituzten, eliza protestantea kexu zen arren, juduen hiletetan kontrarik egon ez zenez, alderidiak aurrera jarraitu zuen bere jardunarekin. Propaganda egiten zen juduen kontra (Goebbels), gestapoen eta SSen bildurra zabalarazten zen kaleetatik, ekonomiaren oinarria herrilanak eta armagintza ziren... Horrek erakusten du Hitlerrek 1933tik gerra pizteko zuen nahia. Versaillesko hitzarmenean galdutako lur asko bere gain hartzen ditu 2MG hasi

baina lehenago, eta horrek herria harekin izatea eta botere guztiak bere gain hartaraztean laguntzen du.

## 2. Errepresioa

Hitler eta bere jarraitzaileen arabera gizarteko talde guztiek belaunaldiz-belaunaldi aldaezinak eta atxiki ezinezkoak ziren ezaugarriak zituzten. Honek demokraziaren eta estatuaren beraren suntsiketa ekarri zuen, Alemania osoa hankaz gora jarriz. Alderdiak eta sindikatuak debekatu zituen juduak bizitza publikotik eta ondasunetatik at utziz. Kontzentrazio esparruetan homosexualak eta juduak ziren 8.000 preso inguru zeuden. 320.000 pertsona gogoz kontra esterilizatuak izan ziren. Kale borrokaren bukaera derrigortu zuen. Versaillesen galdutako hainbat lur berreskuratu zituen. Inflazioa kontrolatu zuen eta langabezia tasak jaitsi egin ziren.

## 3. Iritzia

Harritzekoa da zeinen lan izugarria egin zuen Alemaniako alderdi naziak biztanleria beren eremura erakartzeko prozesuan. Baliabide nabarmenetako bat propaganda izan zuten, horrela beren interesen arabera herritarrak informatuz. Hitlerrek eta beste batzuk oratoria oso ona zuten iritziak diskurtsoak jende gehiagori iristeko erabili ziren. Pentsari dagokionean, alderdi naziak ideiak bultzatzen zituen egunkari bat bereganatu zuen. Honenbestez, informazioak gudan duen eraginaz eta honekin batera gizarte-masa kontrolpean izatearen garrantziaz jabetu gara.

Besteak beste konturatu gara orain arteko historia liburuetan kasua nola azaldu zaigun, eta informazioa nola manipulatu izan den komeni dena ikas eta jakin dezagun; horregatik irakurtzen dugunarekiko irizpide kritikoak garatzeko aukera eman digu lan honek. Egunkariak, iritziak, panfletoak eta diskurtso motak (oratoriak alegia) masari heltzeko modua nola baldintzatzen duten ohartu gara.

Informazioaren kudeaketa eta manipulazioak tabuak izan beharko ez liratekeen gai batzuek ixilpean gordetzeak gaia are tabuago izatea egin du. Aurrera pausua onarpena dela uste dugu, jendearen mina sendatu eta bizipenak zalantzan jarri beharrean, aitorpenak egiazat eman eta benetan historian zehar horren urrun kokatzen ez dugun garaian emandako errepresio eta anikilazioak ezagutzea dakar. Ez da mende bat igaro eta jada ez dugu gure egiteko aukerarik, garraiatu den informazio faltak gizatasunetik aldendu eta estatuko sekretutzat jo baitu gai hau orain artean.

#### 4. Bibliografia

Cohen, E. (2019, enero 25). El Holocausto como espejo. *El Mundo*. 2020ko apirilak 18an <https://www.elmundo.es/opinion/2019/01/25/5c4a20affdddf8358b4586.html> web orrialdetik hartua.

Holokaustoa. *Wikipedia*-n. 2020ko apirilak 18an <https://eu.wikipedia.org/wiki/Holokaustoa> web orrialdetik hartua.

Raffino M. E. (2020, otsailak 12, Argentina). Holocausto. *Concepto.de*. 2020ko apirilak 18an <https://concepto.de/holocausto/#ixzz6JsYcp1DU> web orrialdetik hartua.

Redacción. (2017, enero 17). “No me considero culpable”, el polémico testimonio de la secretaria de Joseph Goebbels, la mano derecha de Hitler y ministro de propaganda nazi. *BBC News Mundo*. <https://www.bbc.com/mundo/noticias-internacional-37097459> web orrialdetik hartua.